

Magia

Mirari Martiarena

Lau urtean behin izaten da bisurtea, lau urtean behin izaten dira hauteskundeak eta lau urtean behin izaten da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Baigorri hasi zen irailaren 23an eta abenduaren 17an bukatuko da Barakaldoko BECen.

Bertsozaleok ongi gogoan izaten dugun data izan ohi da finalarena. Baina bada udazkeneko asteburuetakoko planak txapelketaren arabera antolatzen dituenik ere, kanporaketa guztietara fin-fin joateko.

Txapelketa hasi aurretik galdetzen aritzen gara ea nork irabaziko duen. Baina badakigu edozer gerta litekeela, ez finalean bakarrik, baita final laurdenetan eta finalerdietan ere. Bertsozale Elkartek banatzen duen liburuxkako xehetasun guztiak buruz ikasten ditugu: bertsolari bakoitzaren ibilbidea, gai-jartzaile eta epaileen izenak, fase bakoitzean egin beharreko ariketak, kanporaketa bakoitzaren lekua eta ordua. Bertsolariekin batera gozatzen eta sufritzen dugu. Inguruan parte hartzen duen bertsolaririk baldin ba-

dugu, lasaiago edo urduriago entzuten dugu bertso saioa. Egurrezko aulki karratu deserosotik bultza eginez pasatzen dugu saioa. Barrutik, bertso bakoitzean aurrera egiteko, ez erortzeko esango diegu, eta txalo bakoitza eskuak lehertu arte joko dugu. Bertsolaririk gabe ez dago txapelketarik, ezta bertsozalerik gabe ere. Denen artean sortzen den magia egiten du posible Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia besteak beste. Udazken-negu parteko frontoi izoztuak berotzen dituen magia hori bera. •

Etorkin baten galderak

Koldo Sagasti

Berrogeita zazpi gatibuk ihes egin dute Atzerritarrek Barneratzeko Zentrotik, Aluchen, Madrilen. Matxinatu eta, sarrrerako atea bertan behera botatakoan, alde egin dute etorkinentzako kartzelatik. Arriskuz beteriko bidaia batek eraman zituen jaioteritik espetxe horretara; orain, azkenik, bizimodu duin eta libreagoa dute eskura. Urriaren 1a da eta ohi baino polizia gutxiago dago erresumaren hiriburuan. Agian horregatik, edo horren be-

rrik izan gabe ere, ezohiko erraztasun handiarekin saihestu dituzte presondegiko segurtasun neurriak. Gertaerak ez du apenas oihartzunik izan igande horretan bestelako kezka batzuk dituzten hedabideetan.

Zer pentsatuko ote zukeen iheslari horietako batek egun horretako albisteak ikusitakoan? Nola azaldu Kataluniako herritarren aurkako bortxakeria poliziala gisa bertso gogorkeria bere haragi-hezurretan pairatu duen horri? Nola ulertarazi Espainiara sartzen aha-

legintzeagatik jazarpena, Poliziaren bortizkeria eta eskubide urraketak besterik ezagutu ez dituen horri Espainiatik atera nahi izateagatik antzeko indarkeria erabili dutela estatu bereko indar errepresiboek erreferendum batean bozkatu nahi duten herritarren kontra? Nola azaldu logika horren ilogikotasuna?

Etorkin baten galderak albistegi baten aurrean. Ez dago argituko dituenik, Espainiako historia kontraesan baten historia baita. •